

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,  
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

**Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 13 eta 2020ko maiatzaren 29an hartutako erabakien laburpena: Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko eta finkatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren berariazko deialdia onestea. 2020. urtea**

BDNS(Identif.): 508872

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> eta Vitoria-Gasteizko Udalaren web gunean <http://www.vitoria-gasteiz.org> kontsulta daitezke.

#### Lehena. Onuradunak

Ekonomi Jardueren gaineko Zergan 2015eko uztailaren 1az geroztik alta emanda dauden enpresa txiki pribatuak, edozein delarik bere forma juridikoa, Vitoria-Gasteizko negozio-lokaletan gutxienez 5.000,00 euroko inbertsio-proiektuak egin badituzte diruz lagun daitezkeen kontzeptuetan, eta jarduera nagusia ekonomi jardueren gaineko zergaren epigrafe hauetakoren batean ez badago.

64-67Txikizkako merkataritza eta elikadura zerbitzuak.

681. Hotel eta moteletako ostatu-zerbitzua.

682. Hotel eta pentsioetako ostatu-zerbitzua.

683. Fonda eta apopilo-etxeetako ostatu-zerbitzua.

684. Hotel eta apartamentuetako ostatu zerbitzua.

691.1: Etxerako artikuluko elektrikoaren konponketa.

691.9: Kontsumoko beste ondasun batzuen konponketa (BISG). (beste inon sartu gabeak).

755.2 Bidaia-agentziak.

971.3 Arropak pasaratzea eta konpontzea.

972 Ile-apaindegi eta edertasun zerbitzuak.

#### Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresa txikiak sortzeko eta finkatzeko laguntzak arautuko dituzten baldintzak arautzea, hainbat arlotan 2019ko ekainaren 1etik 2020ko uztailaren 17ra bitartean egindako inbertsioak diruz lagunduta. Arlo hauetako inbertsioak lagunduko dira: eratze gastuak, abian jartzea, komunikazioa, prototipoak diseinatu eta egitea, eta jabetza industrialak babestea; kudeaketa sistemak ezarri eta egiaztatzea eta enpresa sortzeko eta finkatzeko beharrezko aktibo finko berriko elementuetan egindako inbertsioak.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

### **Hirugarrena. Oinarriak**

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko abenduaren 13ko ALHAO, 147. zenbakia.), eta 2020ko martxoaren 13an eta maiatzaren 29an, berriz, laguntza horien 26. ildoan, Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko eta finkatzeko laguntza ekonomikoen deialdia. 2020. urtea.

Udalaren webgunean [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Laguntza deialdi honek 126.700,00 euroko zuzkidura du, 2020rako onetsitako udal aurrekontuko 0821.4331.489.67 enpresak sortzeko eta finkatzeko laguntza partidaren kontura.

5.000,00 euroko inbertsioa eskatzen da gutxienez, proiektu bakoitzeko.

Enpresa eta urte bakoitzeko laguntza-dosier bakarra tramitatuko da, eta gehieneko zenbatekoa 8.000,00 eurokoa izango da.

### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2020ko uztailaren 17ra arte.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren  
eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua  
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*